ZARAUZKO UDALA

*INES DIAZ DE VILLAFRANCA ARZAMENDI, Zarauzko Udaleko idazkaria naizen honek*

*ZIURTATZEN DUT: 2021eko uztailaren 26an egindako bilkuran (akta onartzeko dago), Tokiko Gobernu Batzarrak honako hau erabaki zuela:*

**"MARIA ETXETXIKI EGUNEKO ZENTROA. ADINEKOENTZAT EGUNEKO ZENTROAREN ZERBITZUA ESKAINTZEKO ZARAUZKO UDALAK ETA GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAK DUTEN HITZARMENAREN BAITAN III. ERANSKINA SINATZEA, 2021 URTEARI DAGOZKION TARIFEN ARABERA.**

Espedientea: 2019G9890001

2019ko azaroaren 18an egindako bilkuran, Tokiko Gobernu Batzarrak "Maria Etxetxiki eguneko zentroa 2019. Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Zarauzko Udalaren arteko hitzarmena" onartzea erabaki zuen.

Hitzarmen horren xedea da Gipuzkoako Foru Aldundiaren, Gizarte Politikako Departamentuaren eta Zarauzko Udalaren arteko lankidetza arautzea, mendetasun egoerek eragindako beharrizanei aurrea hartzeko eta erantzuteko zerbitzuak eskaintzeko, eta, zehazki, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretuak I eranskinean adierazitakoak, 2.2.1.1. zentroan: Mendetasun egoeran dauden adinekoentzako Maria Etxetxiki eguneko zentroa.

Maria Etxetxiki eguneko zentroak betetzen ditu bai Gizarte Zerbitzuen Foru Erregistroaren 2015eko otsailaren 3ko 4/2015 Foru Dekretuak Gipuzkoako Lurralde Historikoan jarduten duten entitateei eskatzen dizkien baldintzak, bai adineko pertsona ezinduentzako egoitza zerbitzuak hitzartzeko bete beharreko baldintzak zehazten dituen maiatzaren 22ko 38/2007 Dekretuak jarritakoak (Adineko pertsonentzako Egoitza Zerbitzuen katalogoa).

Hitzarmen horretan, Zarauzko Udalak eta Foru Aldundiak zerbitzuarekiko dituzten betebeharrak jasotzen dira, eta, horren baitan, zerbitzuaren finantzazioa ere bai.

Ekainaren 29an egindako bilkuran, Diputatuen Kontseiluak 2021. urteari dagozkion tarifak onartu ditu. Hori dela eta, hitzarmenaren III. eranskina eguneratu du (tarifak), eta sinatzeko proposamena egin dio Zarauzko Udalari.

Hori guztia kontuan hartuta, Tokiko Gobernu Batzarrak aho batez **ERABAKI DU**:

**Lehena.-** Zarauzko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2019ko azaroaren 18an egindako bilkuran onartutako hitzarmenaren baitan, III. eranskina sinatzea, Diputatuen Kontseiluak 2021eko ekainaren 29ko bilkuran 2021. urterako onartu dituen tarifen arabera.

**Bigarrena.-** Eranskinaren bi ale sinatzea, eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gizarte Politikako Departamentura bidaltzea.

ESKU2e5e0d70-8c40-4cfc-ad25-1a9b31e95a6f

ZARAUZKO UDALA

Gipuzkoako Foru Aldundia, Gizarte Politiketako Departamentua / Diputación Foral de Gipuzkoa, Departamento de Políticas Sociales

**HITZARMENAREN III. ERANSKINA / ANEXO III DEL CONVENIO**

**ZARAUZKO UDALA**

**2021. URTEKO ERREGIMEN EKONOMIKOA / RÉGIMEN ECONÓMICO AÑO 2021**

**Zentroa / Centro: MARIA ETXETXIKI EGUNEKO ZENTROA / CENTRO DE DÍA MARIA ETXETXIKI ZARAUTZ**

| ZERBITZUA ETA MODALITATEA / SERVICIO Y MODALIDAD | | PLAZA KOPURUA / Nº DE PLAZAS | TARIFA* plaza / eguneko / día |
|---|---|---|---|
| MENDETASUN-EGOERAN DAUDEN ADINEKOENTZAKO EGUNEKO ZENTROA / CENTRO DE DÍA PERSONAS MAYORES EN SITUACIÓN DEPENDENCIA | | | |
| Lanegunak / Días laborables | Arreta tarifa / Tarifa asistencial | 44 | 52,89 € |
| | Garraioa / Transporte | | 17,20 € |
| Asteburu-jaiegunak/ Fines de semana y festivos | Arreta tarifa/ Tarifa asistencial | 29 | 60,70 € |
| | Garraioa/Transporte | | 19,78 € |

(*) Gizarte Politiketako Departamentuak tarifaren eta zerbitzua jasotzen duen erabiltzailearen ekarpenaren arteko aldea finantzatuko du. / *El Departamento de Políticas Sociales abonará la diferencia resultante entre la tarifa y la aportación de la persona usuaria del servicio.*

ERABILTZAILEAREN EKARPENA

Erabiltzailearen ekarpena izango da zentroen erabiltzaileen ekarpen ekonomikoaren araubidea arautzen duen Foru Dekretuak aurreikusten duena.

APORTACIÓN DE LA PERSONA USUARIA

La aportación de la persona usuaria será la prevista en el Decreto Foral vigente que regule el régimen de la aportación económica de las personas usuarias de los centros.

ZARAUZKO UDALAren izenean /
Por el AYUNTAMIENTO DE ZARAUTZ

Sin./Fdo.: XABIER TXURRUKA FERNÁNDEZ

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAren izenean /
Por la DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

Sin./Fdo.: MAITE PEÑA LÓPEZ

*Hala jasota gera dadin eta dagokion lekuan eragina izan dezan, ziurtagiri hau egin eta sinatu dut, alkate jaunak ontzat emana, Zarautzen 2021eko uztailaren hogeita zortzian.*

*OE*
*Alkatea*

*Idazkaria*

ESKU2e5e0d70-8c40-4cfc-ad25-1a9b31e95a6f

ZARAUZKO UDALA

*INÉS DIAZ DE VILLAFRANCA ARZAMENDI, Secretaria del Ayuntamiento de Zarautz,*

*CERTIFICO: Que la Junta de Gobierno Local, en sesión celebrada el día 26 de julio de 2021, cuya acta se encuentra pendiente de aprobación, adoptó el siguiente acuerdo:*

**"CENTRO DE DÍA MARIA ETXETXIKI. DENTRO DEL CONVENIO QUE TIENEN EL AYUNTAMIENTO DE ZARAUTZ Y LA DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA PARA OFRECER EL SERVICIO DE CENTRO DE DÍA PARA LAS PERSONAS MAYORES, SUSCRIBIR EL ANEXO III CON ARREGLO A LAS TARIFAS CORRESPONDIENTES AL AÑO 2021.**

Expediente: 2019G9890001

En sesión celebrada el 18 de noviembre de 2019, la Junta de Gobierno Local aprobó el convenio entre la Diputación Foral de Gipuzkoa y el Ayuntamiento de Zarautz. Centro de día María Etxetxiki 2019.

Este convenio tiene por objeto regular la colaboración entre la Diputación Foral de Gipuzkoa, el Departamento de Política Social y el Ayuntamiento de Zarautz para la prestación de servicios destinados a prevenir y atender a las necesidades derivadas de las situaciones de dependencia y, en concreto, los servicios definidos en el Anexo I del Decreto 185/2015, de 6 de octubre, de cartera de prestaciones y servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales, en 2.2.1.1 Centro de día Maria Etxetxiki para personas mayores en situación de dependencia.

El centro de día María Etxetxiki cumple los requisitos exigidos por el Decreto Foral 4/2015, de 3 de febrero, del Registro Foral de Servicios Sociales, a las entidades que operan en el Territorio Histórico de Gipuzkoa, así como por el Decreto 38/2007, de 22 de mayo, por el que se determinan los requisitos para la concertación de servicios residenciales para personas mayores discapacitadas (Catálogo de Servicios Residenciales para Personas Mayores).

En dicho convenio se recogen las obligaciones del Ayuntamiento de Zarautz y de la Diputación Foral respecto al servicio y, dentro del mismo, se recoge la financiación del servicio.

El Consejo de Diputados ha aprobado en su sesión del 29 de junio las tarifas correspondientes al año 2021. Por ello, ha actualizado el anexo III del convenio que refleja estas tarifas y ha propuesto su firma al Ayuntamiento de Zarautz.

Por todo ello, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, **ACUERDA**:

**Primero**.- En el marco del convenio aprobado por la Junta de Gobierno Local del Ayuntamiento de Zarautz en sesión celebrada el día 18 de noviembre de 2019, suscribir el anexo III, de acuerdo con las tarifas correspondientes al año 2021 aprobadas por el Consejo de Diputados en sesión celebrada el día 29 de junio de 2021.

**Segundo**.- Firmar el Anexo por duplicado y remitirlo al Departamento de Política Social de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

ESKU2e5e0d70-8c40-4cfc-ad25-1a9b31e95a6f

ZARAUZKO UDALA

Gipuzkoako Foru Aldundia. Gizarte Politiketako Departamentua / Diputación Foral de Gipuzkoa. Departamento de Políticas Sociales

**HITZARMENAREN III. ERANSKINA / ANEXO III DEL CONVENIO**

**ZARAUZKO UDALA**

**2021. URTEKO ERREGIMEN EKONOMIKOA / RÉGIMEN ECONÓMICO AÑO 2021**

**Zentroa / Centro: MARIA ETXETXIKI EGUNEKO ZENTROA / CENTRO DE DÍA MARIA ETXETXIKI ZARAUTZ**

| ZERBITZUA ETA MODALITATEA / SERVICIO Y MODALIDAD | | PLAZA KOPURUA / Nº DE PLAZAS | TARIFA* plaza / eguneko / día |
|---|---|---|---|
| MENDETASUN-EGOERAN DAUDEN ADINEKOENTZAKO EGUNEKO ZENTROA / CENTRO DE DÍA PERSONAS MAYORES EN SITUACIÓN DEPENDENCIA | | | |
| Lanegunak / Días laborables | Arreta tarifa / Tarifa asistencial | 44 | 52,89 € |
| | Garraioa / Transporte | | 17,20 € |
| Asteburu-jaiegunak/ Fines de semana y festivos | Arreta tarifa/ Tarifa asistencial | 29 | 60,70 € |
| | Garraioa/Transporte | | 19,78 € |

(*) Gizarte Politiketako Departamentuak tarifaren eta zerbitzua jasotzen duen erabiltzailearen ekarpenaren arteko aldea finantzatuko du. / *El Departamento de Políticas Sociales abonará la diferencia resultante entre la tarifa y la aportación de la persona usuaria del servicio.*

<u>ERABILTZAILEAREN EKARPENA</u>

Erabiltzailearen ekarpena izango da zentroen erabiltzaileen ekarpen ekonomikoaren araubidea arautzen duen Foru Dekretuak aurreikusten duena.

<u>APORTACIÓN DE LA PERSONA USUARIA</u>

La aportación de la persona usuaria será la prevista en el Decreto Foral vigente que regule el régimen de la aportación económica de las personas usuarias de los centros.

ZARAUZKO UDALAren izenean / Por el AYUNTAMIENTO DE ZARAUTZ

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAren izenean / Por la DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

Sin./Fdo.: XABIER TXURRUKA FERNÁNDEZ

Sin./Fdo.: MAITE PEÑA LÓPEZ

*Para que así conste y surta sus efectos donde proceda extiendo y firmo la presente con el visto bueno del Sr. Alcalde, en Zarautz a veintiocho de julio de 2021.*

*VºBº*
*El Alcalde*

*La Secretaria*

Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKU2e5e0d70-8c40-4cfc-ad25-1a9b31e95a6f**
*Dokumentu elektroniko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronokoan:* ***https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07910***
*Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica:* ***https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07910***